

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Osteguna, 2011ko irailaren 8a. VIII. urtea. 2.269. zenbakia. www.tolosalde.hitza.info

Villabonako Oinkari Dantza Taldeak ikuskizun berria aurkeztuko du Igor Yebrarekin

Getxoko Folk jaialdian billabonatarak oholtza gainera igoko dira, gaur; emanaldi horretarako sarrerak 'www.bbk.es' helbidean daude salgai

Korrontzi musika taldearen eta Yebra dantzariaren laguntzarekin 'Urratsa' ikuskizuna taularatuko dute **04**

Eskualdeko mendizaleek Lenin mendian bizitako esperientzia «gazi-gozaok»

Giro berezia topatu dute mundu mailan teknikoki errazenetakoa den mendian, eta zenbait mendizaleen jarrerak harrituta utzi ditu **06**



Gipuzkoako aizkolari txapelketaren aurkezpenean, udal ordezkariak, Gipuzkoako Herri Kirol Federazioko arduradunak eta Otaegi aizkolaria egon ziren. I.U.

Mujika eta Otaegi txapelaren bila irtengo dira Bedaion

Gipuzkoako Lehen Mailako Aizkora Txapelketaren finala jokatu dute bost aizkolarik Bedaion, igandean; Mujika ibartarra eta Otaegi zizurkildarra lehian ariko dira **02**

Taloaren inguruan festa antolatu dute Leitza, seigarrenez

Igandean ospatuko dute Talo Eguna, eta jakia dastatzeko aukeraz gain, artisauen postuak eta Aizkolari Gazteen Txapelketa izango dira **06**

AHT Gelditu! Elkarlanak elkarretaratzea deitu du gaur Tolosan

Trianguloan elkartuko dira 19:00etan AHTren lanetan herenegun hildako langilearen heriotza salatzen; Bildu, LAB eta ELAK bat egin dute deialdiarekin **03**



**ELDUAINGO
UDALA**

**Jaietan sano eta txukun ibiliz
eta bertan ez daudenetaz gogoratuz
Aupa Elduaingo Andra Mari jaiak**

Autobus zerbitzua izango da ostegunean, ostiralean eta larunbatean Santa Klara eta Tolosa-Ibarra sarreratik, Leitza gaztetxetik eta Berastegiko farmaziatik
Tolosa-Elduain: 23:00etan, Leitza-Elduain: 23:30ean
Elduain-Leitza: 04:00etan, Elduain-Tolosa: 04:30ean (Kontzeju aurrean)



Agerraldian, udal ordezkariak, aizkolariak eta Gipuzkoako Herri Kirol Federazioko arduradunak izan ziren. I. URKIZU

Bost aizkolari ariko dira Bedaion Gipuzkoako txapela lortzeko lanean

Datorren igandean izango da txapelketa; azken sailkatua bigarren mailara jaitsiko da

Itzea Urkizu Tolosa

Gipuzkoako Lehen Mailako Aizkora Txapelketa jokatu dute igandean eta lehenengoz, Bedaio auzoan. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da norgehiagoka, eta bost aizkolari arituko dira lehian.

Antolatzaileek azaldu dutenez, «berez ezin da esan Gipuzkoako finala denik, ez baitute sailkapen faserik jokatu». Horrela beraz, eta azken urteetako ereduarekin jarraituz, bost aizkolari arituko dira txapela lortzeko lanean. Egin beharreko lanak (4 kana erdiko, 2 oin biko, 60 ontzako bat) bukatzen denbora gehien pasatzen duen aizkolaria, bigarren mailara jaitsiko da.

Arduradunek txapelketa Bedaion ospatzea berrikuntza bat

dela azpimarratu nahi izan dute. Bedaioako Artubi elkarteko arduraduna den Maitane Aiestaranek, urte osoan auzotarrek naturarekin eta kirolarekin loturiko ekimenak antolatzeko egiten duten esfortzua azpimarratu du, eta «urduitasuna eta gogoa» dutela ere nabarmendu du.

Tolosako Udaleko Hasier de los Rios alkateordeak eta Pello Etxabe kirol zinegotziak, «udalak betidandik herri kirolen aldeko apustua egin izan» duela azaldu dute, eta «ekonomiaren egoera ona ez den arren, udal berriak ere bide horretatik jarraitzeko asmoa» duela azpimarratu dute. Modu horretara, Gipuzkoako Aizkolari Txapelketa diruz lagunduko du udalak, lehia Bedaioko jaietako egitarauaren barruan sartuz.

Bost aizkolari, txapela bat

Bost gizonezko ariko dira, alde batetik, Gipuzkoako txapeldun izateko lanean, eta bestetik, bigarren mailara ez jaisteko ahal dutena egiten.

Iñaki Azurmendi ariko da, alde

batetik. 40 urte ditu, eta Beasaingo Arriaran auzokoa da, jada hiru txapela jantzi dituen aizkolari hau.

Jesus Mari Mujika ibartarra ere Bedaioko norgehiagokan izango da. 35 urte ditu berak, eta duela hiru urte igo zen maila nagusira.

Hirugarren aizkolaria Jose Mari Olasagasti izango da, Igeldo auzokoa (Donostia). 52 urterekin, Gipuzkoako 11 txapela irabazi ditu, eta sei aldiz izan da Euskadiko txapelketako irabazlea.

Azkenik, bi aizkolari gazte ere ariko dira. Alde batetik, Zizurkilgo Joseba Otaegi izango da Bedaion. 28 urte ditu, eta 2009an igo zen maila nagusira. Aurkezpenaren azaldu duenez, urrian aizkoran eta korrika egingo duen apustua prestatzen ari du azken hilabeteotan, eta iazko bizitasun hori ez duela azaldu du: «bost aizkolari izanda, txapela oso zail dago. Laugarren edo hirugarren egitea posible da, baina bosgarren egitea ere bai». Euskadiko txapelketako kanporaketa ere oso gertu du Otaegik, baina igandeko probak beldur gehiago sortzen diola esan du.

Azkenik, Mutriku aldetik, 24 urterekin, Ugaitz Mugertza, Mugertza II.a, ariko da. Iaz igo zen maila gorenera, bere aitari 15 segundu aterata.

‘Bertsolari’ren aurre estreinaldia izango da urriaren 12an

Gaurtik aurrera, bonua erosteko aukera izango da Leidorreko lehiatilan, 10 eta 13 euroren truke

I. Urkizu Tolosa

Gaurtik hasi, eta urriaren 12ra bitarte, zine egitarau berria izango da ikusgai Leidorren. Emanaldirik apagarrienetarikoa, Donostiako Zinemaldiko sail ofizialeko Asier Altuna zuzendariaren *Bertsolari* dokumentala izango da. Tolosako aurre estreinaldia urriaren 12an izango da.

Heldu nahiz haurrentzako emanaldiak eskainiko dituzte, eta ohiko moduan, bi bonu mota jarriko dituzte salgai: gaueko saioetarako bonuak 10 eurotan eta saio guztietarako bonuak 13 eurotan. Bonu hauek erosteko

zine saioen aurretik joan beharko da Leidor aretoko lehiatilara, gaurtik irailaren 19ra bitarte.

Ikusleek hamahiru pelikula ikusteko aukera izango dute bonuaren bidez. Gaur bertan, 19:15ean eta 21:45ean, *Una mujer en Africa* filma izango da. Horrez gain, asteburu honetan, *El origen del planeta de los simios*, *La oportunidad de mi vida* eta haurrei zuzenduriko *Los pitufos* pelikulak ere proiektatuko dituzte.

Era berean, datozen asteetan honako filmeez gozatu ahal izango da Tolosan: *Toro salvaje*, *La boda de mi mejor amiga*, *La noche que no acaba*, *La prima cosa bella*, *Uncle boomie redunda sus vidas pasadas*, *El hombre de al lado*, *Principiantes*, *En el centro de la tormenta*, *Arriya* eta *Super 8*. Gaztetxoek, berriz, *Harry Potter y las reliquias de la muerte 2*, *Bad teacher* eta *Kung Fu Panda* ikusteko aukera izango dute.

Gaur da Udaberriko ikastaroetan izena emateko azken eguna

Kultur etxean eman beharko da izena, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara bitarte

I. Urkizu Tolosa

Gaurkoa izango da, Udaberri dantza taldeak haur eta gaztetxoentzat antolatzen dituen ikastaroetan izena emateko azken eguna.

Lehen deialdia pasa den ekainean egin zuten taldeko arduradunek: «baina uda osoan zehar guraso askok erakutsi digute euren seme-alabak ikastaroetan apuntatzeko interesa». Gauzak horrela, dantza taldeko kideek bigarren txanda hau antolatzea erabaki dute.

Tolosako Antonio Maria Labaien kultur etxeko beheko solairuan jarriko dute bulegoa ohi be-

zala, eta arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara bitarte izango da zabalik.

Dantza jendarteratuz

Udaberri dantza taldearen helburuetako bat «dantza herritarren artean zabaltzea» izan da betidanik, eta helburu horri begira antolatzen dituzte ikastaroak.

Haur eta gaztetxoek ikastarotatik, 150 ikasle inguru bildu izan dira azken bospasei urteotan. Helduen ikastaroak dagokienez, berriz, bi talde osatu zituzten iaz, plazako dantzak ikasi nahi zituen jendearekin.

Haur eta gaztetxoek ikastaroak hil honen erdialdean hasiko dira, eta zerrendak www.udaberri.com webgunean izango dira ikusgai. Helduen dantza ikastaroak buruzko informazioa, berriz, laster zabalduko dutela azaldu dute Udaberri dantza taldeko arduradunek.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

*Beti alai
jateke*

**Garaian
garaiko janariak
Arraikitzen berezia**



943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementeeri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

KEY-LAN
Sarraigintza

Nalarrua etorb. 13 behe - TOLOSA
Mug.: 670 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 03 13



Gazta Lehiaketan bosgarren saria Tolosara etorri da. AIMAR MAIZ / GOIERRIKO HITZA

AHT Gelditu! Elkarlanak obrak gelditzea eskatu du

Koordinakundeak elkarretaratzea antolatu du gaur, 19:00etan, Tolosako Trianguloa plazan

A. Imaz Tolosa

AHT Gelditu! Elkarlanak koordinakundeak elkarretaratzea antolatu du gaur Tolosako Triangelua plazan, 19:00etan. Bertan, Abiadura Handiko Trenaren eraikuntza lanetan herenegun Aldaba Txikin zendu zen langilearen heriotza salatuko dute: «Berriz ere langile bat AHTaren eraikuntza lanetan hil da. Hori dela eta, makroazpiegitura hauetan lanean ari diren pertsonak jasaten dituzten baldintzez ohartarazi nahi dugu: amaigabeko lanaldiak, lan erritmo izugarria, segurtasun planik eza, inmigranteen kontratazioa beraien jatorrizko lan hitzarmenen baldintzen arabera, ...».

Koordinakundearen esanetan, azpiegitura honen atzean «sal-tzen» dutenaren aurkakoa aurkitzen da: «Gizarteari jakinarazi nahi diogu abiadura handiko tren lanpostu eta aberastasun iturri bezala saldu arren, horren atzean esplotazioaren antzekoa den lan prekarioa besterik ez dela gordetzen». Jadantik AHTren lanetan bost langile hil direla ere gogoratu dute.

AHT Gelditu! Elkarlanak argi dauka zer dagoen proiektu honen atzean: «Enpresari, eraikitzaile eta banketxeen interes pribatuak babestea helburu duen azpiegiturak eraikitzeako politika ja-

sangaitz honi berehalako amaiera eman behar zaio, izan ere, hauek bakarrik baitira AHTren obretan interesa dutenak. Are gehiago, Espainiako estatua Europa mailan abiadura handiko kilometro gehien duen estatua izanik, langabezi tasa altuena duena da, eta etorkizunean ekonomia hazkuntzean aurrirakuspen txarrenak dituen ere bada. Honek argi uzten du, AHT ez dela aurrerapena, aberastasuna eta ongizatearen iturri, baizik eta krisiaren, defizitaren eta lan esplotazioaren jatorri zuzena besterik ez dela».

Azkenik, obra gelditzea eta herriaren hitza errespetatzea «exijitu» dute koordinakundetik. Horregatik, herritarrak gaurko elkarretaratzea deitu dituzte.

Bildu, ELA eta LAB-en babes

ELA eta LAB sindikatuek AHT Gelditu! Elkarlanaren deialdiarekin bat egin dute. Hauek ere herriarrei Trianguloa plazara azal-tzeko eskatu diete. Tolosako Bilduk ere deialdi bera luzatu du, elkarretaratzearekin bat eginaz. Bilduren esanetan, «egun bizi dugun krisialdi izugarri hau ez dugu langileok ordaindu behar, baina hala izaten ari da, lan baldintza kaskarragoak jasaten ari garela-rik eta langabeziaren mamua gainean izanik. Bitartean, behar ez ditugun azpiegitura ikaragarrien bidez hipotekatzen digute etorki-zuna, benetako beharrei, osasun zerbitzu publikoak tarteko, erantzuten ez dieten bitartean».

Azkenik, Tolosako Bilduk, gehiengo sindikalak gaur 12:00etan udaletxe aurrean antolatu duen elkarretaratzearekin ere bat egin du.

Ordiziako XXXVIII. Gazta Lehiaketan Zuzuarregi bosgarren sailkatu da

Ricardo Remirok irabazi du lehiaketa; bere gazta erdiagatik 7.300 euro ordaindu ditu Bilboko jatetxe batek

Asier Imaz

Ordiziako Euskal Jaietako azoka bereziaren baitan, XXXVIII. Gazta Lehiaketa jokatu zen atzo eguerdian. Ricardo Remiro nafarrak irabazi zuen lehen saria, eta bere gazta erdia, enkantean, 7.300 eurogatik erosi zuen Bilboko Porrue jatetxeak. Bosgarren postuan tolosar bat gelditu zen, hain zuzen ere, Pedro Zuzuarregi. Honek, 190 euroko saria eta diploma eraman zituen etxera.

Gazta lehiaketaz gain, beste hainbat txapelketa ere jokatu zi-

↓ Sailkapenak

Barazki Lehiaketa

1. Jose Manuel Zabalegi (Martutene)
 2. Peio Rubio (Elgoibar)
 3. Dani Olazabal (Anoeta)
- Alpamen bereziak**
Maria Jesus Mujika (Baliarrain)
Edurne Jauregi (Baliarrain)
Montes Etxea (Ibarra)

Gazta Lehiaketa

1. Ricardo Remiro (Eulate)
2. La Leze SC (Ilardui)

ren Ordizian. Hauetan eskualdeko parte hartzaile ugari aurkitzen ziren, eta sarituen artean beste horrenbeste.

Barazki Lehiaketan, Anoetako Dani Olazabal hirugarren postuan gelditu zen. Aipamen berezia, aldiz, Baliarraingo Maria Je-

3. Xabier Muñoz (Zerain)
4. SCA Lopez Azpilikueta (Lezaun)
5. Pedro Zuzuarregi (Tolosa)

Ganadu Lehiaketa

- 3,5-5 urte bitarteko behiak**
1. Garikoitz Nazabal (Zaldibia)
2. Emilio Gorostidi (Abaltzisketa)

5-8 urte bitarteko behiak

1. Emilio Gorostidi (Abaltzisketa)
2. Dolaetxea Elkartea (Oñati)

sus Mujikak eta Edurne Jauregik, eta Ibarraiko Montes Etxeak jaso zuten.

Ganadu Lehiaketan, Emilio Gorostidik bi sari eraman zituen etxera. Adin ezberdinetako behiekin bigarren eta lehen postua lortu zituen abaltzisketarrak.

berria bekak 2011

NORENTZAT:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: zortzi beka

Ezaugarriak:

- Zortzi hilabete eta erdi ko iraupena, urritik ekainera
- Asteazko lau eguneko jarduna
- 5.908 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian edo ordezkarietza

Zuzenketa-itzulpengintza arloa: beka bat

Ezaugarriak:

- Hamabi hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Asteazko lau eguneko jarduna
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian

San Miel jaiei hasiera emateko danborradan izena eman behar da

Danborradan izena emateko azken eguna igandea da; gaur festen antolakuntzarako bilera 19:00etan egingo dute

E. Maiz Irura

Aurtengo San Miel jaiei hasiera haurren eta helduen danborrada-ekin emango diete, Iruran. Hilaren 23an 19:00etan izango da. Lau urtetik gorako herritar guztiei irekitako danborrada izango da. Nahitaezkoa da izena ematea, eta azken eguna igandea, hilak 11 da. Zahar etxean, Ogi Berrin eta udalean eman daiteke. Ezinbestekoa izango da egunean bertan praka bakeroak edo ilunak, kamiseta zuria, festetako zapia eta euskal txapela janztea. Ikastolak, Loatzo Musika eskolak eta Udalak antolatuko dute.

Jaiak gainean direla eta, gaur 19:00etan batzar aretoan bilera egingo dute festa batzordeko kideek. Antolamendu orokorrak hitz egingo da. Herritarrei dei egiten diete bertan eta danborradan parte hartzeko.

Udalak eskaintza zabala prestatu du ikasturte honetarako; matrikula hilaren 23a baino lehen egin beharko da

E. Maiz Zizurkil

Zizurkilgo Udalak ikasturte berriarako prestatu dituen ikastaroak, urriko lehen astean hasiko dira. Matrikulak egiteko azken

Getxo Folk jaialdian Oinkariko dantzariak Igor Yebra izango dute lagun

Gaur 21:00etan Areeta Karpa gunean izango da; sarrerak 8 euroren truke www.bbk.es helbidean eros daitezke

Eneritz Maiz Amasa-Villabona

Gaur, hilak 8, Getxo Folk jaialdian emanaldi berezia eskainiko du Oinkari dantza taldeak. Oinkari eta Korrontziren elkarlanari, hirugarren laguna gehitu zaio azken egunetan, Igor Yebra dantzaria.

Korrontzi & Igor Yebra & Oinkari taldeek, *Urratsa* ikuskizuna aurkeztuko dute Getxon. Emanaldi berezi hau, 21:00etan Areeta Karpa gunean izango da. Ezustekoren bat ere gordea dutela aurreratu dute. Sarrerak www.bbk.es web gunean eskura daitezke, 8 euroren truke.

1974. urtean Bilbon jaio zen Igor Yebra dantzariak ibilbide luzea du. Victor Ullateren dantza eskolan aritu zen, eta Madrillgo Dantza Kontserbatorioan graduatu zen ohorezko matrikulare-



Igor Yebra dantzaria Oinkariko dantzariekin ariko da, gaur, Getxon. HITZA

kin. 1987tik 1996ra bitartean Madrillgo Erkidegoko Baletako lehen dantzaria izan zen.

1996. urtean bakarkako ibilbideari ekin zion. Besteak beste, Atter Balleten, Kremlingo Baletan, Scottish Ballet-en edota Australian Ballet-en dantzatu du.

Freelance dantzari moduan Erromako Operako Baletan eta Bordaleko Operako baletan dantza-ri gonbidatu bezala aritu da. 2007an Bordaleko Operako Baletoko dantzari izar izendatu zuten.

Gaur, Oinkariko dantzariak berarekin dantzatuko dute.

tzako bi ikastaro daude: eskulanak eta gimnasia. Eskulanak ostiraletan izango dira 15:00etatik 17:00etara, eta 70 euro ordaindu beharko da. Gorputza mantentzeko gimnasia astelehenetan eta asteazkenetan izango da 11:15ean. Jubilatuek 75 euro, eta ez direnek 105 euro ordaindu beharko dute.

Ikasturte honetan haurrek, antzerkian edo euskal dantzetan izena emateko aukera dute. Antzerkia, ostiraletan 17:30etik 18:30era izango da, 40 euro ordainduz. Euskal dantzak asteazkenetan 17:15etik 19:15era izango dira, 60 euroren truke.

Elizpe Jubilatuen elkarteak antolatuta, joskintza eta eskulanak, gimnasia eta yoga ere badaude.

Abraham Olano kiroldegiko kirol aktibitateetan izen ematea zabalik dago

Haurrentzako eta helduentzako ikastaroak, urte osokoak edo hiru hilabetekoak dira

E. Maiz Anoeta

Anoetako Abraham Olano kiroldegia bere kirol eskaintza prest dauka. Abonatu eta ez abonatuak izena emateko aukera zabalik dute. Urte osoko edota hiru hilabeteko eskaintza egiten dute.

Helduen urte osoko eskaintzen artean, pilates ikastaroa, astelehenetan eta asteazkenetan 09:15etik 10:10era edo 16:15etik, 17:10era izango da; edo asteartetan eta ostegunetan 18:15etik 19:10era edo 19:15etik 20:10era. Kostua, 158, 62 eurokoa izango da. Aerobika astearte eta ostegunetan izango da 20:15etik 21:10era, eta 157,71 euro ordaindu beharko da. Helduentzako gimnastika berri, astelehenetan eta asteazkenetan 10:15etik 11:10era izango da 153,57 euro ordainduz.

Hiruhilabetekoan artean, Cycling ikastaroa, astelehenetan eta asteazkenetan edo astearte eta ostegunetan izango da, 82,37 euro ordainduz. Ordu egien eskaintza zabala dago aukeratzeko. Yoga, 64,90 eurogatik, asteartetan 10:00etatik 11:30era izango da, edo astelehen eta asteazkenetan 19:00etatik 20:15era, 99,69 euro ordainduz. Kenpo kai astearte eta ostegunetan 19:00etatik 19:55era izango da, 82,37 eurogatik. Patinaria berriz, ostiraletan 19:00etatik 20:30era 42,11 euro ordainduz.

Haurrek urte osoko aktibitateak izango dituzte. Kenpo Kai ostegunetan izango da 17:30etik 18:25era, 97, 85 euro ordainduz. Gimnastika erritmikoa, astelehenetan 17:30etik 18:25era, eta 82,01 euro ordaindu beharko da. Judoa, astelehenetan edo asteartetan izango da 17:30etik 18:25era eta urteko kostua 82,01 eurotako da.

Calidad Peugeot

Peugeot Sarean, prezioa eta kalitatea parean

Kalitatea: Zerbitzu profesionalizatua / Doako azterketa 29 puntutan / Pneumatikoetan bermea
Prezioa: Eskatu aurrekontua eta lasaitasunak gehiago ez duela baino ikusiko duzu.

Eskaintzak ondorengo markentzat balio du:

TOLOSA MOTOR, S.A. San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

monturak

beherapen bereziak

Kale Berria 23 Villabona
 Tel.: 943 111 840

www.villabonaoptika.com



Uztailan ateratako argazki hau Cauterets-ekoa da. Txokolate iragarki bat egiteko, morez margotzea besterik ez du falta behi honek. ANA GOÑI/ARESO



Kantabriatik Asturiasera igarotzen ari ginela, Picos de Europatik gertu, sinplea bezain ederra den irudi honi argazkia atera nion. JON/TOLOSA

Lehiaketa poliki-poliki aurrera doa

XIV. HITZA Argazki Lehiaketan parte hartzeko uda honetan ateratako argazkiak 'thargazkiak@hitza.info' helbidera bidali edo, Tolosako Hitzaren bulegora eraman behar dira

Irakurle guztiek dute lehiaketan parte hartzeko aukera

Erredakzioa

XIV. HITZA Argazki Lehiaketa aurrera doa, hori bai, poliki-poliki. Jadanik zortzi argazki jaso ditugu, baina parte hartzeko

aukera hilaren 23ra bitarte zabalik aurkitzen da. Argazkiak ahalik eta azkarren bidaltzea gomendatzen da ahal eta guztiz ere, izan ere, egunkarian agertzeko, lehen egunetan bidaltzen dituztenek aukera handiagoak izango

dituzte. Bi aukera daude argazkiak bidaltzeko: posta elektronikoko bidez thargazkiak@hitza.info helbidera, eta posta arruntaren bidez, Araba etorbideko 5-atzea helbidera.

Argazki lehiaketa egin izan

dugun beste aldi batzuetan, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariko harpidedunek soilik parte hartu ahal izan dute, oraingo honetan ordea, edozein herritarrek izango du aukera, bere argazkiak bidali eta gure lehiaketan parte hartzeko.

Hiru sari

Argazkiak irailaren 23ra arte bidaltzeko aukera izango da, eta zortzi onenak epaimahaiak aukeratu ondoren, harpidedunek urriaren 5a

bitarte emango dituzte euren bozkek. Hiru argazki irabazleak urriaren 7ko egunkarian argitaratuko ditugu.

Argazki irabazlea bidali duenak Bizkaiko landetxe batean bi gaueko egonaldia irabaziko du bi lagunentzat. Bigarren postuan geratzen den argazkiak, Tolosako Karlis dendan argazki erreportajea egiteko aukera izango du, eta hirugarren saria, Tolosako Astelena jatetxean bi lagunentzako otordua izango da.



Argazkian Esloveniako gaztelu bat. Oso polita, batez ere kanpoaldetik, harkaitza aprobeztatuz eraiki baitzuten. MIRARI IZAGIRRE



Veneziako gondoletan ibiltzeko aukera eduki nuen uda honetan. Benetan zoragarria; pelikuletako protagonista sentitzen zara. AMAIA ARTOLA



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO
hitza

XIV. HITZA Udako argazki lehiaketa

1. Saria

Landetxe polit batean bi pertsonentzako bi gaueko egonaldia

2. Saria

Tolosako Karlis estudioan argazki erreportaje bat

3. Saria

Astelena jatetxean bi pertsonentzako otordua



Pertsonako argazki bakarra bidali daiteke thargazkiak@hitza.info helbidera



Zutik eta ezkerretik, Iñaki eta Joseba Iparragirre, eta Abel Larreta. Makurtuta, Luis Sagastume. HITZA

Zortzi lagun, horietatik hiru Tolosaldekoak, Lenin mendia igotzeko asmoz abiatu ziren uztailaren bukaeran. Inguru haietan, baina, giro deserosoa bizitu zuten, zenbait mendizalaren jarreragatik.

Mendiaren gorabeherak

Imanol Garcia

Lenin gailurra egitera joan ziren eskualdeko gazteak esperientzia berezia bizitu zuten orain aste batzuk. Pamir mendiak ezagunak dira mendizaleen artean, batez ere Lenin gailurra, mundu mailako zazpimilakoen artean teknikoki errazenetakoa delako. «Oso mendi komertziala da», dio Luis Sagastume amezketarrak, mendizaleetako batek. «Jende asko zegoen eta, tartean, ulertzen ez genituen jarrera asko ikusi genituen. Giroa ez zitzaigun gusta-

tu eta Lenin gailurra egiteko motibazioa kendu zitzaigun».

Batez ere espedizio errusiar baten jarrerarekin harritu ziren, bigarren kanpalekuan hil zitzaieen taldekide baten gorpua bertan utzi zutelako, eta espedizioa bertan behera uzteko asmorik ez zutelako erakutsi.

Zortzi mendizale joan ziren batera, horietako hiru eskualdekoak. Sagastumez gain, Juan Manuel Serrano leaburuarra eta Abel Larreta tolosarra izan ziren. Beraiekin Iñaki eta Joseba Iparragirre anai ataundarrak, Urtzi Kalonje hernaniarra, Iñigo Bera-

sategi donostiarra eta Lauri Urkiza ondarroarra joan ziren. Bera-sategi izan zen Lenin gailurra zapaldu zuen bakarra. Beste kideak aklimatazioa egiten ari zirela, donostiarra bakarrik igo zen eta osasun arazoak izan zituen jaisterakoan. Taldeko beste bost mendizale Rasdelnaya gailurrera igo ziren.

Saiakera

Aklimatazioa egin ondoren, 6.000 metrotara hirugarren kanpalekua jarri zuten. Hori eta gero, beheko kanpalekura jaitsi, atsedena hartu, eta taldeko lau mendizale

Lenin gailurra zapaltzeko asमतan atera ziren: Sagastume, Iparragirre anaiak eta Larreta. Ordurako Berasategik gailurra egin zuen. Oso nekatuta jaitsi zen eta biriketan arazoak izan zituen. Medikuek Osh hirira jaisteko agindu zion, berreskuratzeko.

Lau mendizaleak lehenengo kanpalekuan zeudela, beste mendizale batzuek esan zieten bigarrenengo kanpalekuan errusiar mendizale bati buruko edema eman ziola eta hil egin zela. Helikopteroz eraman zuten bertatik. Lenin mendian zeudenetik, heriotza baten berri zuten bigarren

aldia zen. Aklimatazioa egiten ari zirela entzun zuten gailurretik oso gertu poloniar talde batek lagun baten gorpua bertan utzi zutela.

Gehien ukitu ziena, baina, beste errusiar mendizale batena izan zen. Sagastumek gogora ekar-tzen duenez, «lehenengo kanpalekutik bigarrenera zihoala gaizki sentitzen hasi zen. Bere gidak eta espediziokideek bakarrik utzi zuten. Mendizaleak, behera jaitsi beharrean, bigarren kanpalekura joatea erabaki zuen, eta berez sei ordutan egiten zen ibilbidea 24 ordutan egin zuen». Bigarrenengo kanpaleku horretan hil zen edema baten ondorioz, eta bertan utzi zuten gorpua. «Espediziokoak gu geunden lehenengo kanpalekura jaitsi zirenean, ezer ez baltitz gertatu bezala zeuden, eta gailurra egiteko asmoarekin gainera. Gu seko harrituta geunden beraien jarrerarekin», dio amezketarrak.

Menditik joateko gogoia

Laukotea bigarren kanpalekura igo zenean, haizete izugarria zegoen eta aurretik jarritako denda batzuk eramanak zituen. Gaua lo egin gabe igaro zuten haizea zela eta. Hurrengo egunean, beraien dendetatik errusiar mendizalearen gorpua ikusten zuten eta lau mendizaleei leku hartatik lehenbailehen ateratzeko gogoia sartu zitzaieen.

Azkenean, hurrengo egunean 6.210 metro dituen Rasdelnaya gailurra igo zuten. Bidean birek eskuetan arazoak izan zituzten. Egun bat geroago, Serranok mendizale kataluniar batekin igo zuten tontor bera.

Bigarrenetik beheko kanpalekura eta hortik Osh herrira jaitsi ziren mendizaleak. Oporrak bukatzeko falta zitzaizkien egunak Zetaren Bidean zehar turismo pixka bat egiteko baliatu zituzten. Sagastumeri oroitzapen gazi-gozaok sortzen zaizkio Lenin mendiarri buruz: «Serrano Hima-layan egonda zegoen eta ni aurreko urtean Peru aldean izan nintzen. Lenin mendian topatu genuen giro hori ez genuen sentitu beste leku horietan. Esperientzia gisa balio du han bizitakoak».

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Taloea sustatzeko aitzakian, festa izango da igandean

Seigarren urtez Talo Eguna izango da herriko plazan; talo-egileen eta artisauen postuak eta lehiaketa izango dira

Iñigo Terradillos Leizta

Festa giro polita izango da Leitzako plazan igande goizean, izan ere, seigarren urtez, Talo Eguna egingo dute bertan, Plazaola partzuergo turistikoak antolatuta eta udalak babestuta. Gurean hain ohikoa den jaki honen bueltan izango da zer ikusi, ikasi, eta noski, baita jan ere.

10:00etan zabalduko ditu atek merkatuak. Ordu horretan hasi eta goiz osoan zehar, taloak dastatzeko aukera izanen da, Leitzako talo-egileak (Saralegi eta Villabona) ariko baitira lanean. Halaber, beste hainbat produktu ere izango da gerturatzen den ororen eskura, artisauen postuak ere egonen baitira. Horrez gain, taloea egiteko beharrezkoak diren tresnen erakusketa jarriko dute, eta baserriko animaliak ere han izango dira txikien gozamenarako. Hauek, gainera, gurdiz ibiltzeko parada ere izanen dute.

Lehiaketa eta talo platerak

Lehiaketak ere izango du lekua Talo Egunean. Eskualdeko sukaldariek zuzendua izango da, eta lehen hiru sarrituek jasoko dute saria. Pasa den urtean, Zabaleta, Villabona eta Albizu izan ziren talorik goxoenak prestatu zituztenak.

Taloarekin hamaika plater prestatzeko aukera dago, eta horretarako irudimena baino ez da behar. Hori argi utziko dute Musunzar, Peritz, Txoko, Beatrizena eta Elosta taberna eta jatetxeek eurek prestatutako platerekin. Goiza aizkolari gazteek borobilduko dute euren lehiarekin.

Osagai hauekin guztiekin, goiz pasa atsegina ziurtaturik dago, beraz, Leitzan igandean.



Taloak dastatu eta nola egiten diren ikasteko parada izango da. SARA GOMEZ

↓ Talo Eguna

EGITARAUA

■ **10:00etatik aurrera.** Merkatua zabalduko da. Leitzako talo-egile eta artisauak izango dira, eta taloea egiteko nahiz bestelako baserri tresneriaren erakusketa izango da ikusgai. Baserriko animaliak ere izango dira. Haurrentzat gurdiz ibilaldiak egingo dituzte.

■ **11:00etatik 13:30era.** Ekintza gastronomikoak izango dira. Eskualdeko talo lehiaketa egingo da, eta taloarekin egindako plateren erakusketa jarriko dute zonaldeko jatetxeek eta taberneak. Bestalde, gaztetzonen-tzat taloea egiten ikasteko tailerra ere izango da.

■ **12:00etan.** Euskal Herriko Aizkolari Gazteen Txapelketa izango da ikusgai.

Presoen eskubideak defendatzea ez dela delitua dio Bilduk

Oier Eizmendi alkateak eta bi leitzarrek gaur goizean deklaratu dute; herrian lanuztea egingo dute eguerdian

I. Terradillos Leizta

Oier Eizmendi Leitzako alkateak eta Saioa Iraola eta Lurdes Juantorena herritarrek gaur goizean deklaratu dute Madrilén, Auzitegi Nazionalean, Leitzako pestetan «terrorismoa goratzea» egoztia. Bada, hiru herritarrei elkar tasuna eta babesa adierazi dieten leitzarren zerrenda areagotuz doa. Denera, 27 talde eragilek eta 22 norbanako ezagunek sinatu dute auziaren aurkako idatzia, horien artean, Iñaki Perurena ha-

rri-jasotzailea eta Abel Barriola, Oinatz Bengoetxea eta Asier Olai-zola pilotariak.

11:00etan hasiko dira deklaratzeko hiru auzipetuek, eta aurreko egunetan egin bezala, gaurko egunez ere deituta daude mobilizazioak. Hain zuzen ere, 12:00etatik 14:00etara bitarte lanuztera deituta daude herritarrek; alde batetik auzia salatzeak, eta beste-tik, babesa adierazteak.

Normalizazioari «traba»

Bestalde, Aralarrek eta Bilduk babesa adierazi diete auzipetuei. Bilduk azaldu duenez, «ETAko presoen eskubideak defendatu zituzten auzipetuek, eta hori ez da delitua». «Euren aurkako jazarpena eta ehiza» dela auzia gehitu dute, eta «normalizaziorako bidean beste traba bat».



Hainbat eragile eta norbanakok babesa adierazi diete hiru auzipetuei. HITZA

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxe adosatua salgai Tolosan. Eguzkitxua. Lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukalde, bi autoentzako garajea, txokoa, lorategia eta trastelekua ditu. Interesatuak 678 267 657 telefono zenbakira deitu.

■ **Etxebizitza.** Tolosan, bi logela, egongela, sukalde, komuna eta trastelekua dituen hormigoizko etxebizitza salgai. Orainxe bizitzera sartzeko moduan dago. Prezioa 195.000 euro. Interesatuak deitu 619 64 52 56 telefono zenbakira.

■ **Quad-a.** 2004 urteko Suzuki LTZ-400 quad-a salgai. IAT pasatu du, osagarri asko ditu eta oso egoera onean dago. Interesatuak deitu 600 752 537 telefono zenbakira.

GALDUTAKOAK

■ **Txakurkumea.** Setter ingeles arrazako txakurkumea galdu zen irailaren lehen. Anoetako hilerriaren inguruan. Zuri-beltza da eta bost hilabete ditu. Ikusi edo aurkitu duenak mesedez deizala 615 72 90 86 telefono zenbakira. Eskertu egingo da.

LANA

■ **Monitorea.** Kirol monitorea behar dugu Lekunberrin, Larraunen eta Araitz Betelun egin behar diren kirol jarduerak aurrera eramateko: aerobik, pilates, spinbike... Ongi ordaintzen da. Urrian hasteko. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 948 50 73 77. Bidali ezazu curriculum ondorengo helbide elektronikora: plazaola@soysana.com.

TOLOSALDEKO hitza
ETA LEITZALDEKO
bertako egunkaria

902-82 02 01

(Asteunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

tolosaldea.hitza.info
leitzalde.hitza.info

eraman/bidali zure datuak:
Araba etorbidea 5 behe, atzea • 20400 Tolosa

egin zaitez harpidedun!

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak:	•NA:
•Lanbidea:	•Jalotegia:
•Helbidea:	•Herria:
•PK:	•Tel:
•Posta elektronikoa:	
•Kontu zenbakia:	

Aberriaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, betenik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-ren fitategi automatizatu batera pasatuko direla, enpresak dituen eskaintzen berri emateko. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezabatatzeko eta kontu egiteko eskubideak erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.M.- Araba etorbidea 5 behe, 20400 Tolosa, edo harpidetza@hitza.info



≈ 25°
≈ 17°

GOIZA EGIZKIA
ARRATSALDEA EGIZKIA
BEROENA 29°
HOTZENA 20°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarki.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko
eta Leizaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

MOBILIZAZIOAK

- **Leitza.** Gaur, hilak 8, bi orduko lanuztea, 12:00etatik 14:00etara. Espainiako Auzitegi Nazionalak inputatu dituen herritarrei babesa azaltzeko.
- **Tolosa.** Gaur, 12:00etan, Tolosako udaletxearen aurrean elkarretaratzea, euskal gehiengo sindikalak deituta. Bertan, herenegun Aldaba Txikin gertatutako lan istripua salatuko dute.
- **Tolosa.** Gaur, hilak 8, elkarretaratzea 19:00etan Triangulua plazan, AHT Gelditu! Elkarlanak deituta. Bertan, alde batetik, herenegun Aldaba Txikin gertatutako lan istripua salatuko dute, eta bestetik, AHTren lanak gelditzea eskatuko dute.

DEIALDIK

- **Ibarra.** Hilaren 17an, larunbatean, Euskal Herria Eguna ospatuko dute Ibarra. Herri bazkari-rako txartelak salgai jarri dituzte, Danon Txokoa eta Atari tabernetan. Helduen txartelak 12 euro balio ditu, eta haurrenak 6 euro.
- **Ibarra.** Kirol ikastaroetan izena emateko epea zabalik aurkitzen da Belabietako kiroldegian (943 6715 44). Pilota ikastaroen kasuan, Sendi Ekintzara joan beharko da, edo 625 707 829 telefono zenbakira deitu.
- **Villabona.** Oinkari dantza taldean izena emateko aukera zabalik dago. Horretarako 660 13

93 80 telefono zenbakira deitu behar da. Ikastaroetako ordutegiak ikusteko, www.oinkari.net web orrian sartu behar da, *al-bisteak* atalean klikatuz.

■ **Tolosa.** Aitzol Udal Euskaltegian izena emateko aukera zabalik dago. Matrikula epea irailaren 16ra bitarte egongo da irekita. Tolosan errolatutako ikasleek diru laguntzak izango dituzte, udalaren eskutik. Izena emateko, apeadero ondoan dagoen euskaltegiara joan behar da.

■ **Tolosa.** Udaberri Dantza Taldean izena emateko azken eguna gaur da. Tolosako Kultur Etxean eman daiteke izena 18:00etatik 20:00etara.

■ **Irura.** Festa Batzordearen bilera egingo dute gaur 19:00etan udaletxeko batzar aretoan. Bertan San Migel Jailetako antolamendu orokorra aztertuko dute. Herritarrek bertara gonbidatu dituzte.

■ **Leitza.** Euskara ikasleentzat diru laguntzak eskainiko ditu Leitza Udalak. Irailaren 15a baino lehen egin beharko dituzte eskariak ikasleek.

KIROLAK

■ **Amezketak.** Joxean Tolosa Pilota Txapelketaren finalak hilaren 11n, igandean, jokatu dira 17:00etatik aurrera. Bertan eskualdeko bi pilotari egongo dira, Jaka lizartzarra eta Olano aresoarra.



Pagola, Alustiza, Ezeizabarrena, Zabala eta Nazabal Getariako traineruan aritu dira aurtengo denboraldian. HITZA

Eskualdeko bost arraunlari ARC1 mailara igo dira Getariako traineruarekin

Alustiza, Pagola, Ezeizabarrena eta Zabalak bigarren denboraldia dute Getarian

Aitor Elduain

Joseba Alustiza, Aritz Pagola eta Mikel Ezeizabarrena tolosarrak, Jose Luis Zabala berrobitarra, eta Iñaki Nazabal elduaindarrak, Getariako traineruan aritu dira aurtan, ARC2 mailan. Liga aurrean amaitu zuten, eta play-offak jokatu ondoren, ARC1 mailarako txartela lortu zuten, igoera faseko bi estropadak irabazi ostean.

Alegia, eskualdeko neskez batera, badela arraunlaririk Getarian ari denik. Eta bai ondo aritu

ere! Liga amaitzeko lau estropada faltan hirugarrenak ziren, eta ia ziurtatua zuten play-offa jokatzea, hau da, igoera postu bat sartan izango zen kanporaketa.

Aurtan jada bi ikurrina irabaziak baditu Getariak, Pasaian biak, uztailera azken asteburuan, eta urrutia ez zuten izan hirugarrena Getarian, etxeko estropadan, segundo bakar baten aldeaz hartu baitzien aurrea Elantxobek. Zabala aborrorreko hiruan, Pagola istriborrekoei, eta Alustiza puntako, barruan aritu ziren. Nazabalek eta Ezeizabarrenak lehorretik jarraitu behar izan zuten estropada; lehena ordura arteko estropadetan titular izan da, eta bigarrenak estropada bat jokatu du, Gipuzkoako Txapelketa.

Alustizak, Pagolak, Ezeizaba-

rrenak eta Zabalak bigarren denboraldia dute Getarian, Nazabalek berriz lehena -iaz Jon Alduntzin berrobitarra ere aritu zen arranean-. Elduaindarrak da halere tostetan esperientzia gehien duena, Hernanin denboraldi bat osatu baitzuen hasteko, Hondarribian gero bi, eta iaz Zarautzen aritu zen arranean. Alustizak, bere aldetik TAK-en bi denboraldi osatu zituen bateletan -2009an jubeni mailako Euskadiko txapelkun izan zen-. Getarian hasi aurretik, Pagola eta Zabala Sanjoanetako estropadei begira eseri ziren lehenengoz tosta finkoan eta handik hartu zuten trainerurako bidea. Eta Ezeizabarrena zen mundu honekiko arrotzena, sekula arranean aritu gabe aurkeztu baitzen Getariako klubean iazko denboraldi hasieran.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Bronte Cecilia, Korreo Kalea 20. 943 67 60 13.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.

■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

**FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK**

Kondeko aldapa, 5
www.funerariavascongada.com

Gertu...
TOLOSAKO
HILETA ZERBITZUAK
BETILATOKI BULABEA

24 H..

943 670 040